

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **15/2018 mozioa, martxoaren 7koa, gizarte esku-hartzeko lankidetzeta-hitzarmenei buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko martxoaren 7an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

15/2018 mozioa, martxoaren 7koa, gizarte esku-hartzeko lankidetzeta-hitzarmenei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Gizarte Zerbitzuen Sailari eskatzen diote ezen urtero, GOFeren bitartez, abenduaren 31 baino lehen generikoki luzatu ditzala hurrengo urterako foru-eskumeneko zerbitzu edo baliabide asistentzialak kudeatzeko hirugarren sektorearekin dituen hitzarmenak, betiere bi alderdietako ezeinek baliozki salatu ez baditu; halaber, eskatzen diote behin aurreko urteko hitzarmenak likidatuta, zehaztu ditzala luzapen horietako bakoitzeko hitzarmenek aipatzen duten urtearen ekainaren 30 baino lehen.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, subsidiarioki eta autonomietan arautzen ez den bitartean, onetsi dezala gizarte esku-hartzearen esparruko asistentzia-baliabideak erregulatzeko foru-araudi bat, 2019. urterako indarrean egon dadin.

3. Arabako Batzar Nagusiek Gizarte Zerbitzuen Sailari eskatzen diote ezen, foru-eskumeneko asistentzia-baliabideak kudeatzen dituzten hirugarren sektoreko elkarteeekin ados jarrita, aztertu eta ezarri ditzala hirugarren sektorearekiko itun edo hitzarmenatarako formula administratiboak baliabide edo zerbitzu horiek kudeatzeko, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera eta kontratuen arloko legeen arabera. Horren kontu eman beharko du Gizarte Ongizatearen Batzordean sei hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 7a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**